

# Aretxagazeta

Enpresal Ideien  
Lehiaketa

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABALETA *deas*  
*pre-soriales*

Jarri lanean zure ideiak  
Pon tus ideas a trabajar

Informa zaitez!  
¡Infórmate!

**Lanbide berriak:**  
**Ideiarik Bai?**

- VIII Margo lehiaketa
- K-2 Euskal espedizioa
- Futbito txapelketa

3. Boteprontoan  
Zer moduz ikusten duzu zure lanpostua sortzea?
4. Hamabostean behin  
Andra Mari kartel lehiaketak badu irabazlea
5. Hamabostean behin  
VIII. Margo lehiaketako emaitzak kalean
6. Hamabostean behin  
Udaleku irekiak
8. Hamabostean behin  
K-2 espedizioari ongi etorria
10. Erreportaia  
Lanbide berriak sortzeko ideien bila
14. Arlutz Saskibaloitxapelketa  
Finalak
15. Kontu Zaharrak
18. Hurretik  
M<sup>a</sup> Karmen Herrero
19. Apuntetako eta Aretxazoka

## EKAINAREN 23a

**Adizu gazte baldin bazaude langabeziko leizean, proiekturen bat izango duzu jarririk bide luzean. Udaletxean hartu laguntza ta ez egon inpasean, lana be sarri ez denez sortzen ideiarik izan ezean.**

**Gazteentzako dala aukera norbaiti entzun diot nik burua martxan piskat jartzea ez da izango alperrik dirulaguntzen kutxak ei dauka atea zabal zabalik seinale txarra Udaletxea baldin bada lanik barik**

*Jon Iñaki Izarzelai*

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.

## Zer moduz ikusten duzu zure lanpostua sortzea?



**Laura Aldalur**  
(Ikaslea)

Ideia ona iruditzen zait baina aurrera ateratzeko gatxa ikusten dut. Laguntza jaso arren ere. Ideia oso argi izan behar duzu eta era berean ausarta izan.



**Iraide Iturbe**  
(Ikaslea)

Ideia moduan ondo ikusten dut, baina ni neu ez nintzateke ausartuko. Izugarritzko interbertsioa egin dezakezu etekin garbirik ez ateratzeko, beraz, oso ausarta izan behar zara.



**Jon Urkia**  
(Ikaslea)

Gatxa da, nik ez nuke lanpostu bat sortzeko ideiarik izango. Agian esperientzia gehiago duen jendearendako balio izango du.

## KARTAK

Dagokionari:

Ezin aipatzeko utzi azken urteotan Aretxabaletan egin diren aldaketak, hauetariko batzuk batzuren gustokoak eta beste batzuk beste batzurenak, baina uste dut denok pozik hartu behar ditugunak ere ugari izan direla herri honetan, azkena aipatzearen Kurtzebarri Eskolan hasi eta hilerriko bidean bukatzen den parke-museoa, Loramendi Kultur Elkartearen sorrera eta daroan bilakaera (beretzako egoitza egoki eta guzti behinbehinekotasunez bada ere). Industrialdea ere hor dugu, bertan oso ekimen ezberdinek dihardutelarik... etab. etab. Bere egunean gai hauen inguruan eztabaida ugari sortu bazen ere, gaur egun arlo batean edo bestean herriaren onerako izan direla aitortu beharra dago.

Bada, ordea, Aretxabaletan bere egonean hobekuntza handia 17an zuen beste eremun bat baina. 1994an eta Europa barruan gaudela/ez gaudela diogun garai hontan asko hobetu beharrekoa den arloa, garbitasunarena hain zuzen ere.

Aretxabaletan eta bere inguruetan oinez ibiltzea gustatu eta aukera ezin hobea izaten dut egunero arlo honi denon partetik ematen zaion tra-

tamendua ikusteko, eta adibide batzuk aipatzera noakizu: Copreciko bidean alde batetik, eduki ontziak zaborrez beteta eta zakarrak lurrean ikusten dira sarri sarri. Bestetik, Beroa aldean zikinkeriaz betetako "berdegunea" (paperak, plastikoak, belarra moztu gabe... abandono itxuran). Estanpa hau betikoa da. Zabor bilketa egunak ez direnetan herritar batzuk (neure begiekin ikusia) gaueko paseorakoan edo larunbat bazkalostean batez ere, zabor poltsek kaleratzen dituzte, jakin jakinean ez dela bilketa eguna.

Herritik irten eta goruntz jotzen badugu eta Otalazelaira iritsi, edozer gauza aurki zenezake. Araza areagotzen da urtero eguraldi onak hasten direnetik, eta esan behar da urtetik urtero gehituz doala bertaraten den jende kopurua; eguzkia hartzera, eguna pasatzera... etab. Kasurik onenean zakarrontziak bete bete eginda egoten dira, eta jendearen arduragabekeria batetik eta zabor bilketa sistematiko baten falta bestetik, hain paraje polita den Otalazelai ingurua lotsagarri egoten da sarritan (arratsaldea pasatzera joan eta buelta egitea ere tokatu izan zait).

Paseatzen jarraitzen badugu, eta den auzotik dela, berehala antzema-

ten da ez dagoela zabor bilketa zerbitzu bat ezta eduki ontzi batzuk ere bertara zakarra botatzeko, labur labur esanda gai honi ez zaiola irtenbide egoki bat eman. Honen aurrean batzuk aldioro kalera jeisten dute, bete batzuk erre egiten dute, beste batzuk etxetik urrunago dagoen zuloren batera botatzen dute, etxoste batzuk ere ez dira etxaurreak bezain kurioso agertzen fijatzen hasi ezkeru, eta guztiak ahal dutena egiten dute.

Ez dut oso ondo ulertzen auzo hauetan, jende asko mugitzen duen hainbat taberna eta elkarte egonik aipatu arazoari bakoitzak bere irtenbidea bilatu beharrean egotea gaurre-gun.

Lehen esan bezala uste dut arlo honetan duela urte pare bat herri honetan garbiketa zerbitzua beste era batera antolatzea oso egokia izan bazen ere, oraindik nire gustorako "asignatura pendiente" gehiegi dago garbitasun mailan, eta kasu zehatz batzutan oso urrun joan gabe, aldameneko herrietatik, zer ikasia ere badugula esatera ausartuko nintzateke. Ea denon artean hobetzen dugun egoera hau.

**Garbitasuna eskertzen duen bat.**



Haritz Larrinaga, aurtengo Andra Mari kartel lehiaketako irabazlea izan da

## Andra Mari kartel lehiaketak badu irabazlea

Andra maixak abuztuan izango direla eta, aurtun ere, aurreko hilabeteak jaiak ondo prestatzeko aprobetxatu dira. Beraz, besteak beste, hilabete hauetan Andramaixak iragarriko dituen kartel lehiaketa egin da, eta dagoneko baditugu irabazleen izenak. Epaimahaia Fernando Delgado, Angel Goenaga eta Jose M.<sup>a</sup> Agirrezenitagoinek osatu zuten, eta hauen egin beharra aurkeztu ziren 14 lanetatik onena erabakitzea izan zen.

Lan guztiak ondo aztertu

ondoren, aurtengo txapeldun Haritz Larrinaga aukeratu dute. Haritzek "Ondo pasau eta gutxi gastau" lemapean aurkeztu zuen lana eta irabazlea izan delako 25.000 pta eta plaka jasoko ditu saritzat. Bigarren tokian familia bereko Gaizka Larrinaga geratu da. "Hauxe dut hauxe" lemapean aurkeztu zuen lana eta sari moduan 10.000 pta jasoko ditu Gaizkak. Hirugarren tokian "Samuka" lemapean Aitor Etxebarriarteun-ek aurkeztu zuen lana aukeratu dute. Zorionak guztioi!

### Aretxabaletako

Udal liburutegiak liburu gida atera du oportretan irakurtzeko interesgarriak izan daitezkeen liburuez osatuta. Honen barri jakin gura baduzue, liburutegira jo. Gida honen izena Biblioporrak da.

Bide batez, gogoratu liburutegia goizez 11etatik ordu 1etara zabalitzen dela eta arratsaldez 5,30etatik 8etara. Abuztuan, barriz, itxita egongo da. Beraz badakizue, aukera ezin hobea daukazue liburutegian oportretan irakurtzeko.

### Gogoratu, urtero

moduan, aurtun ere abuztuan Aretxabaletako igerilekuko karnetarekin. Arrasateko igerilekura joateko aukera izango da, abuztuan Aretxabaletako Kirol-Etxea itxita egongo delako. 6 urte beherakoak Musakolako igerilekua erabiltzeko karneta beharko dute.

**ANGELINES**  
Autozerbitzua



Mitarte, 16

☎ 79 61 42

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16

☎ 79 73 65

Novedades

MODAN  
DAGOEN  
GUZTIA



Iparragirre, 4  
Tfnoa. 79 21 24



Idoia Elexpuru eta Gurutze Mujikaren lanak.

## VIII. Margo lehiaketa

Uztailaren 3an eta arratsaldeko 7etan VIII. Margo lehiaketaren irabazleak jakitera eman ziren Udaletxeko erakustaretoan. Guztira 33 lan aurkeztu ziren eta epaimahikideek nahikoa lan izan zuten lan onenak erabakitzeko orduan. Epaille lanak Fernando Delgado, Angel Goenaga eta Jose M.<sup>a</sup> Agirrezenitagoiak bete zituzten eta idazkari lanak Inma Migelek bete zituen.

Erabakiak erabaki, honela banatu ziren sariak: Lehen saria Bicente Iriondok jaso zuen, 50.000 pta eta garaikurra.

Bigarren Jose Ignazio Treku geratu zen, 30.000 pta. eta ga-

raikurra. Hirugarren tokian M.<sup>a</sup> Paz Alustizaren lana aukeratu zuten, 25.000 pta eta garaikurra. Lehenengo atxabaltarra Pauxi Bengoa izan zen, bigarrena Idoia Elexpuru eta hirugarrena Gurutze Mujika.

Infantil mailari dagokionez, Gorka Zubizarreta izan da irabazlea, margotzeko materiala jaso du saritzat eta Unai Azkarate bigarren tokian sailkatu denez, margotzeko materiala jasoko du berak ere. Lehen atxabaltarra Igor Olalde izan da.


Hauetaz gain, beste sari bat banatu zitzaion koadro onenari eta Esteban Oroz izan zen saritua.

Kamila Jauregi atxabaltarra joan zen zapatuan, uztailaren 9an, Ullibarrin jokatu zen, Euskaldiko Eski Akuatikoren modalitatean, txapel-duna izan zen. Orain, uztailaren 14ean, Castell de Fels-en jokatu den Espainiako Txapelketara doa. Kamila 9 urterekin hasi zen kirol hau praktikatzen, Ullibarriko urtegiari. Zorionak Kamila eta ea handik ere txapela-rekin bueltatzen zaren.

Peña Zubizarretakoek, urtero moduan, aurten ere umeentzako futbito txapelketa antolatu dute uztailean zehar. Txapelketa honetan ume mordo bat daude apuntatuta, eta partiduak astean zehar jokatzeko dira goizetan, Arlutz taberna ostean. Beraz, badakizue, futbito txapelketa polita ikusteko aukera daukagu goizetan.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura Sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria

## ZARAIA taberna

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK



172 ume elkartu dira lehenengo hamabostaldian

## Udaleku irekiak

Urtero moduan, aurten ere uztaillean zehar, Udaleku irekiak antolatu dira. Udaleku hauek hasiera batean, Aretxabaletako Udal Kultura Batzordeak antolatzen zituen eta aurten nobedade moduan, Ortzadar taldeak antolatu ditu.

Udaleku horiek, bi txandatan banatzen dira, uztailaren 1etik 14ra eta 15etik 29ra. Goizez eta

arratsaldez izaten dira, goizez 10etatik 12,30ak arte eta arratsaldez 3etatik 5,30ak arte.

Lehenengo txanda honetan 172 ume daude, 3urteetik 12 urte bitartekoak.

Ume guzti hauek martxan jarzeko, 23 pertsona dabilta lanean; 20 monitore, zuzendaria, idazkaria eta material arduraduna.

Ekintza desberdinak egingo dituzte: urteerak, jolasak, olinpiadak, egun bereziak... Hau da, gauza desberdinez beteriko hamabostaldia izango dute.

Bigarren txanda oraindik zehaztu gabe zuten antolatzaileek, baina arrasata berdina izatea espero dute.

Orain arteko esperientzia oso ona izan ei da.

### MITARTE GARAI

• *Jatetxea eta logelak* •

Areantza auzoa  
☎ 79 17 51

### ITURGINTZA

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34  
79 31 87

*JOSU  
URDAITEGIA*

Mitarte, 1



Zapatuan, uztailearen 2an, **Atxabaltako atzeratuen aldeko taldeak antolatutako urteroko jaiak izan zen Apotzan.** Bertan, Atxabaltako eta Eskoriatzako atzeratuak elkartu ziren. Goizean joku desberdinak egin zituzten; ondoren, Apotzako Elkartean, bazkaria euki zuten. Bazkalostean, berriro, trikitilariak alaitutako dantzaldia izan zuten.

☐ Gogoratu uztailearen

14, 15 eta 16 an San Lorenzo jaiak ospatuko direla. Hiru egunetarako, antolatzaileek egitarau zabala ipini digute. Jaiak, eguakotxean arratsaldeko 7etan hasiko dira txupinazoarekin. Zapatuan, zezenak egongo dira eta gauean, nobedade moduan, herri afaria egongo da. Gogoratu afarira joan gura duzuenok, Portasoleko tabernetan dituztela salgai tikeak 1.500 pezetaren truke. Domekan barriz, haurrek izango dute egun paregabea: marrazki lehiaketak, xake txapelketak ...

## Ospitale zaharreko zonaldea berriztuta

Uztailearen 6an, Ospitale zaharreko zonaldean, parke barri bat inauguratu zen.

Bi zonalde desberdin egin dituzte, batean umeen jolaserako izango da eta bestea atsedenaldirako tokia izango da.

Bertan, jarlekuak, arbolak eta ur edangarria edukiko duen iturri bat ipini dute. Arbola artean, paseatzeko tokiak egin dira. Horrela paseatzen duen jendeak gehiago erabiliko eta disfrutatuko du.

Bestalde, lehengo trenbide zaharreko bide guztia ondo afaltatu dute, Eskoriatza eta Arrasateko trenbide zaharra elkartu guran.

Guzti honekin, Santa Kurtz



kalea eta trenbidea elkartu dituzte, arrapala baten bidez.

Guzti hau Atxabaltako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldun-

diko Diputatu Kontseiluak eta Ingurugiro saileen artean egin dute, guztira 16.000.000 pztako gas-tua eduki duelarik.



Ongi etorriko momentu bat

## K-2 Euskal espedizioari ongi etorria

Hasiera batean beranduagorako pentsatuta bazuten ere, azkenean Felix Iñurrategik esan zuen moduan, San Ferminetarako bueltatu ziren.

Uztailaren 9an arratsaldeko 4,30etan heldu ziren Sondikako aireportura. Ondoren 7etan Murruxoren lokalaren aurrean ongi etorria egin zitzaion Iñurrategi

anaiei, Kike de Pablo eta Juanito Oiarzabali, euskal espedizioko partaideei.

Lehenengo aureskua eskaini zieten, gero lora sorta bana eman zitzaien, eta azkenik Euskal Herriko Mendi Federazioko zuzendaria den Pako Iriondok berba egin zuen. Ondoren Felixek berba egin zuen, eta hara hurreratu

ziren guztiei eskerrak emanda gero, Josu Bereziartuak eurekin batera k-2ko gailurra ez lortu izana gogoratu zuen, eta penagarria izan zela adierazi.

Bukatzeko txanpana banatu zen hara gerturatutakoaren artean. Eta trakak ere izan ziren.

Zorionak eta datorren urterarte.

# GUREA

TABERNA  
JATETXEA

*Durana Kalea*  
*Tfnoa: 79 20 64*



**MAPFRE**

Aseguroak

*Errekabarren, 3*  
*Tfnoa: 77 11 76*

# MATIKUA

## Taberna

Azatza auzoa  
☎ 79 16 68  
**ARETXABALETA**





Murualde Elkartea

## San Inazio eguna Murualden

Datorren zapatuan San Inazio eguna dela eta, urtero moduan Murualde Elkartean egun horretako ospakizunak izango dira.

Goizean egunari hasiera on bat emateko, salda egongo da denontzat.


Gero, 12etan herriko Elizananza meza izango da hildako bazkideen omenez.

12,30etan, berriz, bolotxapelketa egongo da. Horreta-

rako izen ematea 800 pzt.koa izango da.

Ordu batetan txikiteoa hasiko da eta hau Zabale anaiek alaitutakoa izango da. Ondoren, txikiteoa bukatu eta gero, ordu biak aldera bazkaria. Bazkarian Joxe Lizaso eta Zeberio bertsolariak ere izango dira eta baita Zabale anai trikitilariak ere bazkaria alaitzeko.

Gaueko 10,30etatik aurrera Zabale anaiekin jarraituz erromeria egongo da, Elkartearen aurrean.



## HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte Kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57

## Behe Nafarroan Pastorala

Uztailaren 24rako, Loramendi Kultur Elkartek pastorala ikusteko aukera ematen digu.

Pastoral hau Donaixiti - Ibarre (Behe Nafarroan) izango da eta bere izena Mixel Garikoitz Pastoral da.

Autobusak ipiniko dira, 1.000 pztaren truke, eta izenematea Arlutz edo Loramendi Kultur Elkartean, uztailaren 21a baino lehenago izango da.

Pastoralera joateko autobusak, lehen aipatu dugun moduan, uztailaren 24ean, 7,45etan urtengo du Azbetik

**T  
X  
I  
L  
A  
R  
R  
A**



Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA



Aretxabaletako Udalak, enplegua sustatzeko eta gazteei euren proiektuak aurrera ataraten laguntzeko, "Arrisku Soldata" izeneko programa berezi baten bitartez, lehiaketa bat antolatu du. Lehiaketaren helburua ideia barriak bilatzea da. Gero pentsatutako enpresa martxan jarri ahal izateko. Hau guztia lortzeko ideia barri horiek bilatuko dituzten pertsonen parte hartzea beharrezkoa da.

Bi ideia onenen sustatzaileek sei hilabetez bere enpresaren bidegarritasunean lan egingo dute, horretarako beka bat jasoko dute, bekaren bitartez diru laguntza ere izango dute.

Atxabaltan horrelako esperientzia interes-

garri bat aurrera ataraten den lehen aldia da. Hala ere, antolatzaileak baikor daude izango duen erantzunaz, jende asko espero dute eta modu berean, ideia interesgarri ugari aurkeztuko direlakoan daude. Baina jakina, horretarako jendearen parte hartze zabala espero da.

Lehiaketan parte hartzeko, egin behar den aurreproiektua aukezteko epea irailaren 15ean bukatuko da. Bi hilabete luze geratzen zaizue, bertan parte hartu gura duzuenoi. Bide batez, akordatu eragingo dizuegu, informazio gehiago gura izanez gero, Udalera zuzendu behar duzuela eta Martak, lan teknikariak, dituzuen arazo eta kezka guztiak argituko dizkizuela.

Lanbide berriak sortzeko proiektu bi jarri ditu Udalak martxan. Proiektu hauek egiteko 6 hilabeteko epea izango dute aukeratuak direnak, eta diru laguntza ere jasoko dute proiektua aurrera ateratzeko. Ideia interesgarri honen inguruan gauza gehiago jakiteko asmoz, Jose Mari Armentia eta Marta Madinabeitiarekin egon gara berbetan.



Proiektuaren berri jakiteko, Marta lan teknikariarekin jarri behar zarete harremanetan.

## Lanbide berriak sortzeko ideien bila

• Zein proiektu berri duzue esku artean?

• Bizibide berriak sortzeko proiektu bat daukagu. Izan ere, orain arte Udala lan merkatu berriak sortzeko ikerkuntzan ibili da lanean eta baita formazio mailan ere lan dexente egin dugu. Honez gain, Lan boltsaren gaian zenbait aurrerapausu eman ditugu, eta izena eman zuten pertsona asko dagoeneko lanean ari dira edo proiektu batean sartuta daude. Guzti hau ikusita, enplegu berriak sortzeko lanari ekin behar geniola ikusi genuen eta ideia hau aurrera ateratzeko buru belarri ari gara lanean.

• Nola sortu enplegu berriak?

• Bere garaian enpresak elkarrezko aukera ikusi genuen eta guztion laguntzaz ideia berriak bilatu. Guk nahi genuena Atxabaltako enpresetatik ideiak bilatzea zen. Askotan, enpresetan ideia

berri asko sortzen dira, baina denbora faltagatik ezin dituzte aurrera atera. Alor honetan, beraz, bide interesgarri bat ikusi genuen zabalik. Baina orain, Diputazioaren programa bati esker, Arrisku soldataren programari esker hain zuzen ere, bi beka interesgarriekin egin dugu topo. Beka hauen bitartez bidegarritasuneko...bi proiektu jar ditzakegu martxan. Honekin, langabezia dauden atxabaltarrak euren enpresa sortzeko ideia lantzen eta jorratzen has daitezten gura dugu.

**Idea ona bada eta aurrera ateratzeko gertu badaude, Udalaren aldetik laguntza besterik ez dute jasoko**

• Nola bideratu behar duzue proiektua?

• Enplegu berriak sortzeko proiektua aurrera ateratzeko, lehiaketa bat egin dugu. Ziur gaudela ideia berri asko sortuko direla eta jendearen parte hartzea ere ona izango dela. Lehiaketa finkatzeko arau batzuk jarri ditugu. Aurkezten diren guztiek aurreproiektu bat aurkeztu beharko dute Udaletxean. Guk gidoi bat egin dugu, beraz, aurkezten den jendeak gidoi hori jarraitu beharko du. Era berean, garbi utzi gura dugu, aurreproiektua egiteko laguntza osoa eskeiniko dugula, alor honetan jendeari beldurrik ez izateko eskatuko genioke, ideia ona badute eta aurrera ateratzeko gogoaz badabilta, gure aldetik laguntza besterik ez dute jasoko.

• Ze baldintzak jarri dituzue lehiaketan parte hartzeko?

• Ez dugu baldintza berezirik

jarri, ideia guztiak jasotzeko ger-  
tu gaude. Parte hartzeko, langa-  
bezian egon behar dira, 18 urte  
baino gehiago izan eta Atxabal-  
tan zentsatua egon. Ezaugarri  
hauek betetzen dituzten guztien-  
tzat ateak zabalik egongo dira,  
gero euren egin beharra aurre-  
proiektua aurkeztea izango da.

## • Lanak baloratzeko jarri duzue erizpiderik?

• Balorazioa egiteko orduan,  
hiru puntu hartuko ditugu kontu-  
tan. Aurkezten den ideiak Atxa-  
baltako merkatuan irtenbiderik  
izatea. Ideia bultzatzailearen gai-  
tasuna, zeren gerta daiteke ideia  
ona izatea baina bultzatzaileak  
bete beharreko baldintza mini-  
moak ez beteteta, beraz, puntu  
hau ere kontutan izango dugu.  
Eta azkenik, proiektu eragilear-  
en borondatea. Egingo dugun  
elkarrizketan ikusten badugu per-  
tsona hori bekaren diruagatik eto-  
rri dela bakarrik, berehala bertan  
behera utziko dugu proiektua.

Aurkezten direnek lan egiteko  
gogoia erakutsi behar dute, ez du  
balio ideia ona izatea eta aurrera  
ateratzeko lan egiteko asmorik ez  
izatea.

## • Diruari dagokionez, eman behar duzue laguntzarik?

• Proiektua egiteko aurkezten  
direnek laguntza izango dute, bai-  
na guk bestela ez dugu dirurik  
eman behar. Hala ere, diruaren  
kontzeptua nahiko oker ulertzen  
dela uste dugu. Edozein ideia ona  
den neurrian, eta aurrera atera dai-  
tekeen neurrian, beti izango du  
finantziabiderik, dirua dutenek  
ideia horren alde apostu egingo  
dutelako. Diruari garrantzia ken-  
du behar zaio, garrantzitsuena  
ideia da, sortu gura dugun enpresa  
bideragarria izatea, gero denon ar-  
tean bilatuko dugu dirua. Gainera  
beste gauza bat; gure enpresa sor-  
tzeaz berba egiten ari bagara, ini-  
ziatiba pribatu bati buruz mintza-  
ten gabilta, publikoa balitz ez  
zen gure enpresa izango. Are eta

gehiago, zu zeu enpresarioa izan  
gura baduzu arriskatu beharrean  
aurkitzen zara. Aitzitik, admi-  
nistrazioak diru guztia emango  
balizu, edonor izango litzateke  
enpresari.

## • Bukatzeko, zeozer gehia- go esateko baduzu?

• Bai, guk egoera honetan  
dauden guztiei animatzeko esan-  
go genieke. Ideiaren bat buruan  
bueltak ematen badute, Udale-  
txera etortzeko eta ahal dugun  
guztian lagunduko diegula. Be-  
raz, beldur barik etorri, bi proiektu  
ditugu eta ideia onak badira  
gauzatu ahal izango ditugu. Gai-  
nera, proiektuak aurrera atera  
ezkero, bati baino gehiagori etor-  
kizuna ziurtatzen lagundu die-  
zaiokegu. Bide batez, gogora ara-  
zi gura dizuegu lanak aurkezteko  
epea irailaren 15ean bukatuko  
dela. Beraz, lehen bait lehen  
Udaletxera informazioa jasotze-  
ra etortzen bazarete denbora ge-  
hiago izango duzue.



**Arlutz Saskibalo**i txapelketak eman ditu bereak. Final erdiak eta finalak jokatu eta gero, txapelduen izenak baditugu dagoeneko. Txapelketako talde onena Aker izan da. Talde honek Fatxun taldearen kontra jokatu zuen eta puntu bateko diferentziaz irabaztea lortu zuen. Puntu bakarra, erabakiorra izan zen Aker taldea txapelketako jaun eta jabe izateko. Ondorioz, Fatxu taldea bigarren postuan sailkatu zen. Hirugarren eta laugarren postuan beste bi taldek neurtu behar zituzten indarrak, baina San Pedrotan partiduta jokatu be-



har zenez eta Eskoriatzan jaiak zirenez, ez aurkeztea erabaki zuten. Erabaki hori Esguinice eta Lleno por favor taldeek hartu zuten. Beraz, txapelketa bukatu denean ez dakigu zein talde sailkatu den 3. eta 4. tokian.

Finaleko neurketari buruz ona izan zela esan behar da, nahiz eta epaile lanetan ibili zirenak nahiko petral bete euren lana. Orain Arlutz Saskibalo

# Arlutz saskibalo

## Azken Sailkapena

- 1- Aker
- 2- Fatxus and the others
- 3- Esguinice
- 4- Lleno por favor

# ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

# Kirola nagusi uztailean zehar

Kirola izaten da protagonista nagusia uda aldean. Eguraldi onak batetik eta lasai egoteko denbora gehiago dugula bestetik, kirola egitera eramaten gaituzte. Orain arte Arlutz saskibaloia txapelketa izan dugu. Batzuek bertan jolas egiteko aukera izan dute eta beste batzuk ikusle moduan ia partidu guztietan egon dira. Hemendik aurrera, Peña Zubik antolatutako duen gazteentzako futbito txapelketa dela eta, goizero Arlutz taberna osteko kantxan, Atxabaltako neska-mutilak baloiari ostikoak gonoraz ematen ikusteko aukera izango dugu. Eta arratsaldero eta baita zapatu eta domeketan ere, Arlutz futbito txapelketa bihurtuko zaigu protagonista aipatutako kantxan.

Arlutz futbito txapelketari dagokionez, hasi dira dagoeneko lehen neurketak eta talde batzutatik besteetara dauden diferentziak nabarmentzen hasi gara. Baina aurretik esan behar dugu guztira 25 taldek eman dutela izena. Talde guztiak hiru multzotan



Egunero futbito partiduak jokatzeko dira Arlutz osteko kantxan

banatu dituzte: bi multzo 8 taldez osatuta egongo dira eta beste multzoan 9 talde arituko dira elkarren kontra. Neurketak egunero jokatzeko dira 6ak laurden gutxietatik aurrera. Zapatu eta domeketan ere ez dute jairik hartzen eta goizeko 10etatik gaueko 9ak arte jo eta sua ibiltzen dira taldeak. Batzuk besteen kontra jokatzeko uztailean 26a arte ibiliko dira. Orduan eraba-

kiko dira, lortutako emaitzen arabera, zeintzuk sailkatuko diren final laurdenak jokatzeko. Uztailearen 27an osterara, final erdiak etorriko dira eta 28an finala iritsiko zaigu. Aurrez aurre txapelketako talde onenak izango ditugu. Eta jakina, maila onena erakusten duenak irabaziko du aurten Arlutz futbito txapelketa. Multzo desberdinetan dauden taldeak honako hauek dira:

## A Multzoa

- 1- Baloia apurtu
- 2- C.B.B- 23
- 3- Etxoiten
- 4- Pitotxas calientes
- 5- Zaraqia taberna
- 6- New team
- 7- Came over
- 8- Zotz

## B Multzoa

- 1- Kama sutra
- 2- Luis Eceiza B
- 3- Quien sabe donde
- 4- A.S Surcos
- 5- Elkar
- 6- Karburos
- 7- A.A.K
- 8- Tabixetarrak

## C Multzoa

- 1- Zingilipurdika
- 2- Eztanda egin arte
- 3- Descarriaos
- 4- K.K.M
- 5- Irati S.T.S
- 6- Maderazzo
- 7- Ugly's txinato
- 8- Asto balzak
- 9- La banda



**E**skolako oporrak hasi berri eta jadanik entzun ditugu guraso askoren marmar eta kezak. “Desietan nau eskolan hasi deitzezen” “Honeik ume petralok” “Desde luego, gaurko maixuak, lan gutti ta gainera urte osua bakaziñuetan pasetan daue”.

Azken esaldi hau ez da egia, baina aurrekoan ez zaie arrazoirik falta. Egia esan, oraingo neska-mutikoez ez dute zer ikusirik lehengo ikasleekin. Lehen bai, lehen, ume formalak, zentzudunak, garbi eta nagusiekiko errespetoa gordetzen zutenak. Ikusi besterik ez dago 1954ko argazki honetan. Kurtsoa bukatu ondoren eta eskolako azken urtea zenez, etorkizunerako irudia utzi nahi izan zuten, denak txintxo-txintxo.

Ezkerretik hasita, goian: **Purita Feo, Angelica Axpe, M.<sup>a</sup> Carmen Akizu, Salome Lasa, Mercedes de los Mozos** (maistria), **Luisa Axpe, Arantza Urzelai, Marilu Lizarralde** eta **Begoña Arana**.

Ezkerretik hasita, behean: **Dorita Arze, Marina Perez de Mendiguren, Txaro Arenaza, Purita Beltran de Heredia, Mertxe Kortabarría, Milagros Toledo** eta **M.<sup>a</sup> Carmen Lopez de Armentia**.

Eta aldaketa guzti honen kulpa, norena? Maixuena, jakina ba. Lehen bai, lehen!

## Opor usaina



J.J. Aretxaga

Opor usaina dago. Umeak egun guztian (baita gabeen be) jolasean, gazteak be antzera eta besteok zelabait, fabrikatik urten eta ahal duguna egiten dugu. Igarriko diozue gaurko "besteak besten".

Oporrak aitatu ditugunez, alkatearen-gandik hasi behar. Herriko alkatea, **Aitor Antxia**, oporretan ei dago, eta azkenengo "Holak" zekarrenez, Austriako anaiak bisitatzeraz joan da Maria Wörthera (horrela idazten dela uste dut), orijinala bada. Dena dela, herria alkate barik ezin da utzi eta suplenteak bete beharko ditu orain alkate lanak, **Felis Beltran de Herediak**.

Oporreterako gertu egon dadin edo, herriko "hotela" konponketan hasi behar direla entzun dut. Konponketa horien ardura **Murruxok** hartu du, mendizale elkarteak jakina. Leixargarateko refugio edo txabola udan dotore-dotore jarteko asmoa dute eta han goian gainera izarrak gura aina dauzkate, bostetik gora.

Kirol sailera pasatuko gara. **Jose Miguel Elizburuk**, Xabier Lazpiurren anaiak, erlojuz kontrako Gipuzkoako txapelketa

irabazi du. Anaiaren bide bera daroa.

Kirol freskarragarria izan behar du eski akuatikoak, ur gainean egiten den eski mota horrek. Herri honetan denetik daukagu. **Kamila Jauregi** atxabaltarra izan da Euskadiko txapelduna kirol ezezagun horretan eta orain Espainiako txapelketan parte hartuko du.

Herriko karterak edo postariak, **Beatriz Jimenezek**, egiten duen kirola eskalada da, hormetan gora igotea eta horrelako kontuak. Herrian zehar kartak banatzen ibiltzeak lagunduko zion beharbada, Espainiako lehenengo proban laugarren postuan geratu da.

Kirol munduarekin jarraituaz, **Joseba Larrinaga** uztailaren 18an (lehenago egun seinatua) Berlinera doa Munduko txapelketan parte hartzera. Animo Joseba!

**Igor Arenaza**, barrez, Bizkaiko Bilbo haunditik Gipuzkoako Bilbo txikira etorri da. Datorren urtean Eibarren jokatu du Igorrek, etxetik gertuago behintzat. Ea zorte hobea daukan!

Opor usainaz hasi eta horrela bukatu gura nuke. Herriko Madril txikiton jaiak dira aste honetan. Madril txikiak Madril haundiaren antza hartu gura duela ematen du. **Portasoleko** jaietan aurten Carmen Sevillaren agurra, play-back eta horrelakoak sartu dituzte. Madril bakarrarekin ez ete da nahikoa?

Ahaztu baino lehen. Ni ere oporretara noa, irailera arte beraz. Ondo pasau oporrak, gutxi gastau eta bueltak... badaezpada itsulapikoan sartu.



**Saria: 7.000 pztako materiala eros dezakezu Aitziber haur jantzi dendan**

**BAZKIDEEK  
BAKARRIK IZANGO  
DUTE JOKU BARRI  
HONETAN PARTE  
HARTZEKO AUKERA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..



▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:

**Pedro Mendieta**

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, **Jon Garro Iturrospe**. Bazkide -zenbakia: 90.



**Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?**



Erantzuna:.....  
Izen-abizenak:.....  
Helbidea:.....  
Tfnoa:.....



**Izena:** M.ª Carmen Herrero

**Ofizioa:** Herizaina

**Afizioa:** Umeen arropa

**Misioa:** Jende behartsuari laguntzea

**1.- Nongoa zara?**

- Arrasatekoa.

**2.- Eta zer egiten du arrasatear batek Atxabaltan?**

- Bizi, lasaiago bizitzen da Atxabaltan.

**3.- Zenbat denbora deroazu dendan?**

- Irailean urtebete egingo dut.

**4.- Igartzen da krisia dendan?**

- Urtebete bakarrik noa denbarekin beraz, nahiko berria naiz. Oraingoz ondo doakit dena dela jendeak krisia igertzen dela dio.

**5.- Ze saltzen da gehien dendan?**

- Denetarik, haurdunaldi-

rako erropak, umeendako errepak....

**6.- Ze kolore eramango da datorren neguan?**

- Berdea eta gorria batez ere.

**7.- Beherapenetan jende gehiago etortzen da?**

- Bai, beti igertzen da. Beherapenetan mugimendu gehiago dago.

**8.- Seme-alabarik baduzu?**

- Parejatxoa daukat, 2urte eta 4 urtekoa.

**9.- Zure dendako erropekin jazten dituzu?**

- Bai, jakina.

**10.- Denbora libretan zer egiten duzu?**

- Denbora libre gutxi daukat, baina tartetxo bat hartzen duda-

nean pasiatzera joatea gustatzen zait.

**11.- Egunkaririk irakurtzen duzu?**

- Oso gutxi irakurtzen dut.

**12.- Ze lan egiten duzu etxean?**

- Etxean denetik egiten dut.

**13.- Noiz elkartzen zara lagunekin?**

- Aste bukaeretan, astean zehar ezin dut.

**14.- Udan zer egiten duzu?**

- Hondartzara joaten naiz.

**15.- Jubilatzen zarenean zer egitea gustatuko litzazuke?**

- Hondartza dagoen leku batean bizitzea gustatuko litzaidake.



## LASAGABASTER

### ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

## 15 EGUAKOTXA

- Portasoleko jaien hasiera. (Ikus egitarau berezia)

## 16 ZAPATUA

- San Lorentzo jaiak Portasolen. (Ikus egitarau berezia)

## 17 DOMEKA

- Zاراia Mendi Taldearen urteera: Artzanburu-Gogormendi

- Zikloturisten urteera: Aretxabaleta-Udana-Astiria-Zerain-Zegama-Otxaurte-Altsasu-San Roman-Narbaxa-Aretxabaleta. Guztira 128 km.

## 24 DOMEKA

- Zاراia M.T.-aren urteera: Kostaldera

- Zikloturisten urteera: Are-

txabaleta-Landa-Narbaxa-Olazagutia-Urbana-Olazagutia-Narbaxa-Landa-Aretxabaleta. Guztira 126 km.

## 27 EGUAKOTXA

- Santixau jaiak koruetan

## 31 DOMEKA

- San Inaxio eguna Muru Alde Elkartean.

# ARETXAZOKA

### Lana

- ✓ Aulkia hondatu bazaizu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Deitu 79 15 96ra.

- ✓ OHoko eta 1. eta 2. mailako Goi Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 97.

- ✓ Irakasle tituladunak klase partikularrak ematen ditu O.H.Oko 1go mailatik 8. mailararte. Tfnoa: 77 10 72

### Etxebizitza

- ✓ Etxebizitza alokatzen da Santanderko hiriburuan. (Sardineron ondoan). Abuzturako. Tfnoa: 79 49 15

- ✓ Pisu bat alokatzen da Atxabaltan. Tfnoa: 79 40 19.

- ✓ Iruñean pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 47 72

### Salerosketak

- ✓ Txakur pekines bat oparitzen da. Tfnoa: 79 89 91.

- ✓ Karro denda salgai. 6 plazatakoa. Egoera onean dago. Tfnoa: 79 65 70.

- ✓ Wolswagen Polo salgai. SS-U matrikuladuna. Tfnoa: 79 19 90. Deitu gabeko 8etatik aurrera.

**atxabaltarron aldizkaria kalean  
ikusi ahal izateko ezinbesteko ko-  
laborazioa eskainiko duzu.  
Euskeraren onerako egin zaitez  
bazkide.**

**Aretxagazeta Elkarte, Kultur-Elkarte    ARETXABALETA**  
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila

## DAGOENeko ZURE ZERBITZURA!



MITARTE, 2

TFNO: 770081

ARETXABALETA